

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Indarkeria sexisten aurkako informazio eta arreta gunea San Sebastian Egunean**

Donostiako Udalak, urtero bezala, San Sebastian Egunean eraso sexistak prebenitzeko kanpainarekin jarraituko du, baita erasoren bat jasoz gero artatzeko kanpainarekin ere.

Hori dela eta, kasu horiei aurre egiteko informazio-, prebentzio- eta arreta-gunea bat jarriko da Boulevardeko kioskoan, San Sebastian Egunaren bezperan, hau da, urtarrilaren 19an, gaueko 22:00etatik urtarrilaren 20ko 04:00etara. Bi ordu gehiago, iazkoarekin alderatuta.

Informazio-gunean egongo den materiala:

- Lepoko zapiak
- Txapak
- Eranskailuak
- Eskumuturrekoak
- Neskentzako liburuxkak
- Mutilentzako liburuxkak
- Herritar guztiei zuzendutako liburuxkak
- Baliabideen telefono-txartelak

Bestalde, sentsibilizazio materiala banatuko da hiriko 100 tabernatan, besteak beste: eraso sexisten aurrean jarduteko protokoloa, pegatinak, zerbitzarietzako txapak,... Neurri horiek sexu-hezkuntzan eta berdintasunean adituak diren emakume gazteek gauzatuko dituzte.

Bi ekintza horien bidez, eraso sexisten aurkako jarrera proaktiboak sustatu nahi dira, eta eraso sexistak jasaten dituzten emakumeei eta neskatoei arreta eman.

Donostia, 2024ko urtarrilaren 16a